




HILEKO ZOZKETAK / 10



Egun osoko egitaraua prestatu dute Abadiñoko Koba Live jaialdiaren laugarren ediziorako / 16

Bikandi, Bernaola eta Ituarte izango dira eskualdeko ordezkariak Olazar txapelketan / 21



June Arbeo atleta durangarrak zilarrezko domina irabazi du Espainiako txapelketan / 20



Irailaren 16tik 24ra bitartean botoa emateko aukera egongo da Udako Argazki Lehiaketan / 12

"SUIZIDIOA ERREALITATEAREN ZATI MODURA AURKEZTEAK ELKARRIZKETAK SORTZEN LAGUNTZEN DU"

Monika Salgueiro EHuko psikologia fakultateko irakaslea da, baita Aidatu suizidioaren prebentziorako eta ezagutzarako elkarteko kidea ere. Hilaren 27an berbaldia emango du Zugazan. Suizidioari buruz epairik barik eta patxadaz berba egitera deitu du / 2-3

Monika Salgueiro, Durangoko Arteakalean.

DURANGO
HIZ
KUN
TZA
ESKOLA OFIZIALA

ZIURTAGIRI OFIZIALA

Deutsch · English · Euskara · Français

MATRIKULA ZABALIK (on-line)
Talde presentzialak eta erdi-presentzialak

1.fasea irailaren 1etik 16ra, biak barne
2.fasea irailaren 17tik urriaren 6ra, biak barne

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango
015054aa@hezkuntza.net · 944 288 310
www.eoidurangoeo.hezkuntza.net



EMAN IZENA
72,36€

Ekaitz Herrera SUIZIDIOA

Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Egunagaz bat eginda, Durangoko Udalak hainbat ekintza antolatu du Aidatu elkartearen laguntzagaz. Monika Salgueiro Macho (Bilbo, 1982) elkarte horretako kidea da. Suizidologia du ikergai, eta suizidioa prebenitzeko neurriak eta ezagutza dibulгатzen ditu elkartearen eskutik. Horrez gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia fakultateko irakaslea da eta suizidioaren prebentziorako graduondokoan esku hartzen du. Hilaren 27an Durangoko Zugaza zineman egongo da berbaldia ematen. Zineforuma egingo dute Jon Sistiagaren *Tabú: y al final, la muerte... huida* pelikula ardatz dutela, eta filmaren amaieran emango du berbaldia, Lorena Martin psikologoagaz batera. Jardunaldia 11:00etan hasiko da.

Joera suizida duzu ikergaitariko bat. Zer dakigu joera horri buruz?

Uste dugun baino gehiago daki, baina oraindino ez da nahikoa. Gaiari buruz berba egiterakoan, gutariko gehienoi 'suizidioak' datozkigu burura, 'suizidio bidezko heriotzak', baina joera suizida hori baino fenomeno askoz globalagoa da, konplexuagoa, faktore asko duena. Eta hor ez daukagu kausa argirik edo ezagunik; hain zuzen ere, askotariko oinarriak daukelako atzean: norbere buruaz beste egiteko ideia, autolesioak, suizidio saiakerak edo sufrimendu jasangaitzen bat suizidioagaz konpondu daitekeela pentsatzea egon daitezke horren guztiaren atzean. Horregaitik diot, suizidioa bera baino askoz zabalagoa dela joera suizida.

Badago patroirik? Suizidioak badu ezaugarri zehatzik?

Ez dago profil zehatzik, baina arrisku faktore asko bai; identifikatuta ditugu. Adibidez, gizonzkoetan emakumeetan baino gehiago gertatzen da, nahiz eta emakumeek suizidio ahalegin gehiago egin. Adina ere arrisku faktorea da, suizidio tasa askoz altuagoa delako pertsona oso adindunetan. Biztanleria-dentsitate txikiko inguruetan, isolamendu gehiago eta hartu-eman komunitario gutxiago egotera, arrisku faktoreak gora egiten du. Beste kasu batzuetan, osasun egoeraren gain-behera, desegituratutako familiak edo iraganeko kontsumo ohitu-

"Beharrezkoa da suizidioaz epairik bako foroetan berba egitea"

MONIKA SALGUEIRO MACHO PSIKOLOGIA IRAKASLEA ETA SUIZIDOLOGIAN ADITUA
EHUko psikologia fakultateko irakaslea da, baita Aidatu suizidioaren prebentziorako eta ezagutzarako elkarteko kidea ere. Hilaren 27an berbaldia emango du Zugazan



Monika Salgueiro EHUko Psikologia fakultateko irakaslea eta ikerlaria.

rekin loturiko bizipenak daude. Edozelan ere, ezin gara sinplekerian jausi. Ezin dugu esan faktore hauek suizidiorako kausa zuzena direnik. Izan ere, oso erraz barneratu dugu joera suizida osasun mentalari loturiko arazoa dela dioen ideia. Aurreiritzi horretan geratu gara dirudi. Alabaina, horrek ez du esan gura osasun mentaleko arazoren bat dutenak suizidio bidez hilko direnik, ezta suizidio bidez hil diren guztiek osasun mentaleko arazoren bat zutenik ere. Urrutirago begiratu behar dugu. Barneratu behar duguna da suizidioa ez dela arazo indibiduala, pertsona horri loturiko zerbait.

Posible da suizidio arriskua detektatzea? Badago seinalerik?

Badakigu euren buruaz beste egin dutenak edo hori egiten ahalegindu direnak etsipen bolada sakona igaro dutela aurretik, sufrimendu psikologiko handia izan dutela. Askotan, pertsona hori bere buruaz beste egitera zerk eraman duen jakiteko bulkada izaten dugu, erantzunak bilatzekoa, baina ez dugu kausa argirik identifikatzea

"BIZTANLERIA DENTSITATE TXIKIKO INGURUETAN, ARRISKU FAKTOREAK GORA EGITEN DU"

lortu. Dakiguna da kasu askotan alarmarako seinaleak egoten direla. Batzuetan, oso aitortpen argiak dira. Adibidez, bizitzeaz nekatuta dagoela adieraztea, heriotzari buruz modu orokorrean berba egitea, despedida modukoak egitea, balio handiko objektuak entregatzea, sare sozialetako kontuak ixtea edo despedida itxurako mezuak publikatzea. Beste batzuetan, jokabide kontraesankorrak izan daitezke alarmarako seinale. Adibidez, bolada triste eta txar bat igaro duena halako batean primeran eta zoriontsu aurkeztea. Izan ere, gertatu daiteke pertsonak erabakia jada hartuta izatea eta sufrimenduari amaiera emango diola jakiteak bere aldartea arintzea. Edozelan ere, gauza bat oso garbi izan behar dugu: alarma seinale horiek detektatzen ikasi dezakegu, bai, baina kontuan hartuta kasu guztietan ez dagoela alarmarako seinalerik. Eta hori behar den moduan ulertzen ez badugu, pertsona horren ingurukoak kulpabilizatzen ibiliko gara, "ez zinen ezertaz konturatu?", "ez zenuen ezer sumatu?" eta antzekoak galdetuta. Ez gaude prestatuta horiek aurreikusteko, eta horretarako tresnak izanda ere, kasu guztiak ezin dira aurreikusi.

Zelan hasi beharko ginateke suizidioari buruz berba egiten?

Joera suizida estigmatiz inguratuta dago eta guk beldur moduko batez bizi dugu. Gurago izaten dugu ez begiratu. Eta beldur hori dela eta, oraindino jende askok uste du hobe dela barbarik ez egitea, gaia saihestea. Baina badakigu jakin isiltasunak ez duela laguntzen, kontrako baina: tabua handitzeaz gainera, laguntzarako espazioak murrizten ditu. Izan ere, baten bati barru-barrutik eta bene-benetan zelan dagoen galdetuta, "ez zaitut ondo sumatzen", "berba egitea gura duzu?" edo "baxu igartzen zaitut" adierazita, entzuteko prest gaudela adieraziko diogu. Beharbada ezingo dugu arazoa konpondu, agian ez delako pertsona horrek behar duena. Sufrizten dabilzan pertsonen sufrimendu hori aitortu gura izaten dute askotan, txarto daudela ulertzea, eta min horretan bidelagun izatea. Haren sufrimenduan presente egoteak, laguntzeak,

bakardade sentipena arintzea ekarri dezake. Keinu txikia izan daiteke guretzat, baina zerbait handia harentzat.

Zergaitik kostatzen zaigu laguntza eskatzea eta laguntza ematea?

Normalean, baten bat molestatuko dugula pentsatzen dugulako. Sufrimenduari amaiera zelan eman pentsatzen dabil-tzanek, ondokoarentzat karga moduko bat direla sentitzen dute. Eurek barik aldamenekoak hobeto egongo direla pentsatze-ra heldu daitezke. Pertzepzio horrek sentimenduak bahitzen ditu, eta horrek oztopatzen du, hain zuzen ere, laguntza eskatzea. Bestalde, baten batek txarto dagoela adierazten digunean, arazoa minimizatzeke joera izaten dugu, nahiz eta jokabide hori asmorik onenagaz egin. Txarto dagoenari borondaterik onenagaz "animatu zaitez" edo "ez da hainbesterako izango" esatea ez da lagungarria izaten. Izan ere, konturatu barik, honako mezu hau helarazten ibiliko gara: "zure mina ez da nahikoa". Eta ez gara konturatzeko pertsona horrek bere esku dagoen guztia egin duela zulo-tik irteteko. Askotan ez dugu beharrezko tresnarik izaten aholkuak behar den moduan emateko. Horixe da, hain zuzen ere, ikasi behar duguna. Askotan ez dute aholkurik gura, ondoan egotea, ulertzea eta laguntzea baino.

Lagunartean, familian, gure egunerokotasunean, zelan tratatu beharko genuke suizidioa?

Konplexua da, mundu guztiak ez dauka-eta berba egiteko erraztasunik. Eta ez nabil suizidioari buruz bakarrik. Jende askori kostatzen zaio heriotzari eta sufrimenduari buruz berba egitea. Gaiok saihestu egiten ditugu, nahiz eta bizitzan halako egoerei aurre egin beharko diegun. Suizidioari dago-kionez, nahiko frogatuta dago auzia guk uste dugun baino presenteago dagoela gure inguruan. Batzuetan norbait gertukoa izango da, eta urrutia-gokoa, ezagunen bat beste batzuetan. Baina gaia mahai gainean ipintzeak eta errealtatearen zati modura aurkezteak elkarriketak sortzen laguntzen du. Gatxa da, baina behin gaia zabaldua, jendeak oztopo gutxiago izaten du suizidioaz berba egiteko. Nahikoa frogatuta dugu hori. Oso beharrez-

koa da suizidioaz epairik bako foro horietan berba egitea.

Eta kontrakoa: zelan ez tratatu suizidioa gure eguneroko elkarriketetan?

Azkenaldian, suizidioaz berba egiteko mezua gizarteratu dugu, baina sentsazioa dut ez ote dugun mezu hori gehiegi higitu. Suizidioari buruz berba egin bai, baina egin dezagun ganoraz, patxadaz, behar den moduan. Komunikabideetan urte askoan beldurra egon da suizidioaz berba egiteak ez ote duen "dei efektua" ekarriko. Orain badakigu berba egitea-gaitik ez dagoela dei efekturik. Kontrara, gaia modu desegokian lantzeak ekarri dezake arriskua. Adibidez, pertsona batek bere buruaz beste egin duela gertaera modura komunikatzen badugu, albiste horrek txutxu-mutxu izaera hartuko du, eta mezu arriskutsua helaraziko diogu kolokan dagoenari: "Berak zuloan egonda hori egin badu, ni ere ezingo naiz irten zulo-tik" pentsatuko du, zelan-bait. Suizidioa tratatzean ezin gara sinplekerian jausi. Bestalde, baten bat suizidio bidez galdu dutenek hiru galdera errepikakor jasotzen dituzte ingurukoen partetik. Euretari-ko bat "Zein modutan egin du?" izaten da. Galdera horrek ez die ingurukoei batere laguntzen. Beste galdera bat hau izaten da: "Zergaitik egin du? Zerk eraman du horretara?".

"TASAK IGOERA LEUNA IZAN ARREN, LAGUNTZA ESKATZEN DUTENEN KOPURUAK ERE GORA EGIN DU"

"FROGATU DENEZ, SUIZIDIOA GUK USTE DUGUN BAINO PRESENTEAGO DAGO GURE INGURUAN"

"GALERA JASAN DUENARI 'EZ ZENUEN IGARRI?' ESATEAK KULPA SENTIPENA AREAGOTZEN DIO"

Eta beste bat hau: "Ez zenuten ezer igarri?". Azken horrek kondena bat, erruduntasuna ezartzen dio gertukoari. Heriotza hori ekidin zezakeela iradoki eta erruduntasuna sentiarazten diogu inplizituki.

Suizidioari aurre egiteko estrategia aldaketak, hau da, berba ez egitetik gaiari buruz behar den moduan berba egitera igarotzeak, lagundu al du kasuak gutxitzen?

Datu gordinak ikusten baditugu, kopuruak ez du behera egin, igoera leun bat izan baitugu azken urteotan. Espainiako estatuan 4.000 herritarrek baino gehiagok egin zuten bere buruaz beste 2023an. Baina laguntza eskatu dutenen kopuruari erreparatzen badiogu, igoera dago. Egia da ez dugula kopuru orokorra txikitu, baina pentsa dezakeguna da laguntza baliabide horiek ipini izan ez bagenitu, beharbada suizidio kopurua handiagoa izango litzatekeela. Koronabirusaren ondorengo urteetan, logikak esaten zigun suizidio kopuruak gora egingo zuela nabarmen. Eta ez da horrela izan. Hala ere, ez gabilta gure helburua betetzen: Munduko Osasun Erakundeak suizidio tasa % 30 murriztea eskatu zuen 2030era-ko, eta ez gaude bide horretan. Tresna asko gabilta martxan ipintzen, baina oraindino ez dugu horien eraginkortasun maila neurtu.

Datuak Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara ekarrita, egun birik behin herritar batek bere buruaz beste egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Halantxik da. Euskadin, gutxi gorabehera, 180 herritarrek egiten du bere buruaz beste urtean. Kasurik gehienak Bizkaian izaten dira, baina logikoa da, biztanleriarik gehiena herrialde horretan dagoelako. Erdialdean dago Gipuzkoa, eta atzean Araba. Kopuru handia den arren, zenbaki egonkor samarra da, eta baxuena Espainiako estatuko gainerako erkidegoekin alderatuta. Asturiasen dute tasarik altuena, eta tasa altuak dituzte baita Andaluziako zonalde zehatz batzuetan eta Galizian ere. Biztanleria dentsitate txikiko eremu geografikoek hainbat klabe eman dezakete, hartu-eman sozialak eta hartu-eman onuragarriak izateko garrantzia, hain zuzen ere.



Durangoko Udalak adierazpena irakurri zuen eguaztenean. DURANGOKO UDALA

Jardunaldi bi Durangon

Durangoko Udalak eta Aidatu elkarteak jardunaldi bi antolatu dituzte, Suizidioa Prebenitzeko Nazioarteko Egunagaz bat eginda. Hilaren 23an, *Bizitzeko lagundu: adinekoen suizidioaren prebentzioa* berbaldia egongo da Astarloako adinekoen egoitzan (18:15). Irailaren 27an zineforuma egingo dute Zugaza zineman, Jon Sistiagaren *Tabú: y final, la muerte... huida* filma ardatz hartuta (11:00). Monika Salgueiro Lorena Martin psikologoagaz batera egongo da bertan. Filma amaiturikoan berbaldia egingo dute bertaratutakoekin. Era berean, Bizenta Mogel Bibliotekak gaiari buruzko mahai tematikoa ipini du liburutegian.

Bestalde, Durangoko Udaleko ordezkariak adierazpen instituzionala irakurri zuten eguaztenean, irailak 10. Ordezkariek Otamotzenen batu ziren suizidioaren prebentzioaren garrantziaz ohartarazteko. Eta Durangoko kakorraz lantaldeko kideek Otamotzenako eserleku bat hori koloreagaz margotu zuten, suizidioaren prebentzioa irudikatzen duen koloreagaz.

Laguntzarako hainbat bide

Instituzio publikoek eta suizidioaren prebentzioan esku hartzen duten elkarteek hainbat bitarteko dute herritarrei laguntza eskaintzeko. Monika Salgueirok horietariko batzuk gomendatu ditu. Euretari-ko bat **024** telefono zenbakia da, Espainiako Osasun Ministerioak kudeaturikoa. Egutero-egutero eskaintzen dute arreta, egutero 24 orduetan. Zerbizua anonimotasunez eskaintzen dute, telefono deien zerrendan arrastorik utzi barik, eta doan. Telefono horretara behea jota daudenek zein behea jota dagoenagaitik kezkatuta daudenek jo dezakete orientazio eske. Telefono zenbaki horrek txat zerbizua ere badu.

Bestalde, Osakidetza Osasun Aholkularitza zerbizua eskaintzen du **900 203 050** telefonon. Hori ere 24 orduz eskaintzen dute, asteko zazpi egunetan. Eta Aidatu elkarteak **aidatu.org** ataria du. Bertan, askotariko informazioa eta laguntza helbideak eskaintzen dituzte. Euskal Herriko beste elkarte bat Biziraun da. Suizidioak mindutako herritarren elkarte da. Elkarri laguntzeko taldeak antolatzeaz eta dinamizatzaz gainera, berbaldiak ere ematen dituzte. Biziraunegaz hartu-emanetan ipini gura duenak **info@biziraun.org** helbide elektronikora idatzi dezake. Nafarroan, Besarkada elkarte dago (**info@besarkada-abrazo.org**)

Durango arropa denden eskaintza, oholtza gainera

Durango Fashion Gauaren aurtengo edizioa irailaren 26an egingo dute. Andra Mariko elizpean izango da, 20:30ean. Aurtun ere durangarrek hartuko dute ardura herriko arropa denden denboraldi berriko jantziak oholtzan desfilatuz erakusteko

Ekaitz Herrera DURANGO

Arropa denboraldi berriagaz batera, bueltan da Durango Fashion Gaua ere. Dendak Bai elkarte desfilearen zarpigarren edizioa prestatzen dabil, eta aurtun ere udazken-negu denboraldiko arropa eta osagarriarik interesgarrienak aurkeztuko dituzte desfile parte hartzaile bat eginda. Ohikoa den moduan, durangarrak arduratuko dira herriko saltokietako proposamen berriak jantzi eta jendarean desfilatu ahala erakustez. Aurtengo Fashion Gaua irailaren 26an egingo dute, Andra Mariko elizpean, 20:30ean. As- teon ibili dira, hain zuzen ere, modelo lanetan parte hartuko duten herritarrak aukeratzeko. Edozelan ere, Dendak Baik kideek azpimarratu dutenez, parte hartzaileek ez dute baldintza berezirik bete behar izango. Nahikoa izango dute 18 urte beteak izatea. "Aniztasuna, hurbiltasuna eta tokiko talentua"



2019ko Durango Fashion Gaua. DENDAK BAI

bultzatu gura dituela azaldu du merkatarien elkarteak.

Prestakuntzak ere bai

Fashion Gauaz gainera, Dendak Baik, Durangoko Udalagaz elkarlanean, prestakuntza saioak

antolatu ditu bere sareko merkataritza eta ostalaritza establezimenduentzat. Irailaren 17tik azaroaren amaierara arte eman- go dituzte. Fidelizazioa, digitalizazioa eta komunikazioa landuko dituzte, besteak beste.



Durango Artekalea. DURANGOKO UDALA

Alkoholaren kale-kontsumoaz galdetu diete durangarrei

117 durangarrek parte hartu dute galdeketa. Euretatik % 86k "beharrezkotzat" jo dute ordenantza bat egitea

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango Udalak alkoholaren kale-kontsumoa arautzeko asmoari eusten dio. Ekainean herri kontsulta bat martxan ipini zuten udalaren web atarian, eta inkesta horren emaitzak jakinarazi dituzte azken egunotan. Udal iturrien esanetan, 117 durangarrek eman dute iritzia, eta euretatik % 86k "beharrezkotzat" jo dute ordenantza bat sortzea. % 10,25, oster, kontra agertu dira, eta arauak eta zigorrak barik, "kontzientziarioan" oinarritutako alternatibak eskatu dituzte, gazteentzat bereziki.

Arazorik aipagarrien artean, "zarata eta zikinkeria" (erantzunen % 60 baino gehiagotan agertzen dira kontzeptuok), "borrokak eta segurtasunik eza" (% 22) eta "bandalismo ekintzak edo kalte materialak" (erantzunen % 7) daude. Herriko gunerik problematikoenei dagokienez, Andra Maria eta Alde Zaharra identifikatu dituzte (erantzunen % 50), baita *Matute* legez ezagutzen den plazaratxo ere (erantzunen % 25). Durango Udalak iragarri du prest duela ordenantzaren zirriborroa, eta bertan jasoko dituela herri galdeketa iritziak.

Sanfaustoetako kartel iragarlea aukeratzeko bozketa, martxan

41 lan aurkeztu dituzte lehiaketara; 7 dira finalistak. Herritarrek hilaren 16ra arte eman dezakete botoa



Finalera ailegatu diren zazpi diseinuak. DURANGOKO UDALA

Ekaitz Herrera DURANGO

Aste gutxi batzuk baino ez dira falta durangarrak herriko jai nagusiak ospatzen hasteko, eta egunak joan egunak etorri, geroago eta agerikoagoak dira horretarako zantzuak. Izan ere, jaietako kartel iragarlea aukeratzeko herri bozketa martxan da. Aurtun 41 lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta jai batzordeko kideek zazpi pasarazi dituzte finalera. Durangarrek zazpi horien artean erabakiko dute, hain zuzen ere, zein izango den jaietako kartel iragarlea. Botoak udalaren parte hartze plataforman eman daitezke, martitzenera arte.

Udalak irailaren 17an jakinaraziko du zazpi horietako zeinek iragarriko dituen aurtengo sanfaustoak. Irabazleak 900 euroko saria jasoko du.

LABUR-LABUR

Berrikuntzak Obra Brigadaren eraikinean

Durango Udalak brigadako eraikina egokitzen hasi da. Aireztapen, elektrizitate eta suteen aurkako babes sistemak hobetuko dituzte. 258.880 euroko inbertsioa egingo dute guztira.

Zahartze aktiborako 17 tailer Durangon

Udalak psikomotrizitatea, autoestimua, informatika eta memoria lantzeko tailerrak antolatu ditu, besteak beste. Aramotzen, Tabiran, San Fauston, Madalenen eta erdigunean eskainiko ditu. Aurreinskripzioak hilaren 22an hasiko dira.

Erretzeari uzteko beste ikastaro bat

Mankomunitateak tabakoa uzteko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa doakoa da eta 15-18 lagunekin taldeetan antolatuko dute, 60-90 minutuko saioetan, aditu batek lagunduta. Izen emateak, Elkartegian.

Bizkaiko Erromeria Egunaren zain

Urriaren 4an Bizkaiko Erromeria Eguna egingo dute Durangon, lehenengoz. Askotariko belaunaldiak batu guran, ekitaldi ugari egongo da Landako Gunearen inguruan. Tartean, Esna Gazte, Luhartz, Goazen telesaileko kideak eta Zutik erromeria.

Durangoko Jabekuntza Eskola hainbat nobedadegaz dator

Emakume artistei buruzko tailerrak, antzerki laborategia eta eskalada taldea batu dituzte ikastaroen eskaintzara

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak Jabekuntza Eskolako eskaintza berria aurkeztu du asteon. Erabiltzaileen inkestak aintzat hartuta eratu dute ikasturte honetako programa, eta egitarau "praktikoa" eta "egokitua" osatu dutela azpimarratu du Jessica Ruiz berdintasun zinegotziak. Zazpi bloketan bereizi dituzte ekintzak: emakumeen nortasuna, gizartean eta politikan parte hartzeko bideak, kultura berri bat sortzeko buruzko jardunaldiak, osasunari eta generoari buruzko jardunaldiak,

migrazioa, emakumeen autonomia eta ahalduzko teknologikoa.

Ruizek gaineratu duenez, emakume gazteak ekintzetara gerturatzeko izango da aurtengo erronketariko bat. "Egia esan, adin jakin bateko emakumeen profila gailentzen da ekintzetan, eta orain ahalduzko berezia egingo dugu emakume gazteak gerturatzeko", azaldu du. Hori horrela, emakume gazteentzat beren-beregi prestatutako ekintza programatu dute: eskalada. 12tik 24 urtera arteko neskentzat izango da. Edozelan ere, Ruizek argitu du Jabekuntza



Jessica Ruiz zinegotzia (erdian) eta Kety Arrabal eta Nagore Uribe-Etxebarria teknikariak.

Eskolako ikastaroak adin guztietako emakumeentzat daudela zabalik, izan gazte zein heldu.

Aurreko ikasturtean, 275 emakumek parte hartu zuten ikastaroetan. Autodefentsa feministari buruzko tailerrari dagokio-

nez, iaz ez zen talderik eratu, baina ekintza mantentzeko asmoa dute, talde eskatzaileen batek hala nahiko balu. Durangarrek irailaren 22ra arteko epea izango dute tailerretan izena emateko.

Zapatuan Zaldi Eguna ospatuko dute Olazarko zelaian

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarrek Zaldi Egunaren beste edizio bat hartuko du zapatuan. 09:00etan hasita, askotariko ekintzak egongo dira Olazarko zelaian. Zaldiei harre-eginda hasiko dute jardunaldia, eta baso ibilaldia egingo dute ondoren, 10:00etan. Gaztara helduta, hamaiketako egingo dute eta umeek poneyekin ibiltzeko aukera izango dute 12:00etatik aurrera. 14:00etan herri bazkaria egingo dute, eta behin hori amaituta, eguneko ekintzarik ikusgarriena egingo dute, *Ranch Trail* deritzona. Sari banaketagaz amaituko dute Zaldi Eguna. Ekitaldi hori 20:00etan hasiko da.

Politika fiskalean "koherentzia" izatea eskatu dio EH Bilduk EAJri

"EAJk 2026rako zergak izoztuko dituela agindu du, aurtengo higiezinaren zerga % 13 igo ondoren", kritikatu dute



Durangoko EH Bilduko ordezkariak. DURANGOKO EH BILDU

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko EH Bilduk "koherentzia eta heldutasun politikoa" eskatu dizkio EAJri, Ondasunen eta Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) jeltzaleek "agindutakoaren kontra" doalakoan. Koalizio subiranistak adierazi duenez, EAJk udal zergak berrikusi eta jaitziko zituela "ziurtatu" zuen 2023an. Baina errealitatea "beste era batekoa" izaten ari dela diote, 2025eko zergak "% 13" igoko direlako irailaren. "Durangoko EAJk 2026rako zergak izoztuko dituela agindu du, aurtengo OHZ % 13 igo eta gero", kritikatu dute. EH Bilduren iritziz, EAJk "intereselektoral" darabil. 2026rako tasak eta zergak izoztea iragarri izana "hauteskunde estrategia bati" zor zaiola uste dute. "Politika fiskal argia" eta "eztabaida eraikitzailea" eskatu dituzte.

Euskara ikastaroak diruz lagunduko dituzte Zaldibarren

Eskatzaileek egiaztariak aurkeztu beharko dituzte. Era berean, % 80ko asistentzia egiaztatu beharko dute

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak diru laguntzak prestatu ditu 2024-2025 ikasturtean euskara ikasten ibili diren ikasleentzat. Interesdunek dagoeneko zabalik dute eskariak, agiriak eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea. Urriaren 31ra arteko epea izango dute horretarako. Eskatzaileek Zaldibarren erroldatuta egon beharko dute eta homologatutako ikastaroak izan beharko dituzte egin-da. Era berean, % 80ko gutxieneko asistentzia egiaztatu beharko dute. Zaldibarko Udalak

trinkotasun txikiko zein trinkotasun handiko ikastaroak lagunduko ditu, baita autoikaskuntza ikastaroak ere. Diru laguntzen zenbatekoak honako hauek izango dira: matrikularen % 75 estaliko dute asistentzia % 80-90 artekoa den kasuetan; matrikularen % 90 asistentzia % 90 den kasuetan, eta ikastaroaren % 100 asistentzia erabatekoa denean. Trinkotasun handiko ikastaroetan, kostuaren erdia arduratuko da udala. Autoikaskuntza kasuetan, 600 euroko laguntza emango dute gehienez.

2025/2026ko eskolaz kaltpoko jardueretan pentatu ditzu!

4 eskola hilean fordu hastean

Gazte zaldiez aire zabalean, landu koordinazio fisikoa eta mentala garapen sozial eta emozionala sustatzen duen ikhala egiten duzun bitartean.

88€

Deitu konpromisoarik gabe

www.hipicazelaialai.com/ 691 74 66 11. Gastaletza 7/8 48215 Iurreta (Bikola)

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangeldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Harri Orri Ar eta piknik lehiaketak, Izurtzan

Izurtzako jaiak bigarren eta azken asteburuan murgilduko dira. Ekimen asko Santo Tomas parkean zentratuko da, Gertufest jaialdiaren barruan. Askotariko ikuskizunekin batera, lehiaketa kuriosoetan parte hartzeko aukera ere izango da

J.Derteano IZURTZA

Izurtzako jaiak ekimenez beterik datoz bigarren eta azken asteburuan. Santo Tomas parkeak protagonismo berezia hartuko du gaur arratsaldean eta zapatu goiz-eguerdian, Gertufest jaialdiagaz.

Jaialdiko egitarau zabalaren barruan lehiaketa kurioso bi daude, aurtun lehenengoz egingo dituztenak. Batetik gaur, 18:00etan, Harri Orri Ar esku joko txapelketa izango da. Torneos Durango taldeak antolatu du eta irabazleak 100 euro jasoko ditu. Edonork parte hartu dezake eta ez dago aurretiaz izena eman beharrik, antola-



Dantza saioa, iazko Gertufest jaialdian.

tzaileek zehaztu dutenez. Beste tik, zapatuan, 13:30ean, piknik txapelketa egingo dute. Santo Tomas parkean piknika egiteko eta bertan jateko gonbita egin dute antolatzaileek. Izen ematea 628 233 479 telefonoan egin daiteke aurretik; baita egunean bertan ere Gertufesten txosnan. Hiru sari banatuko dituzte: 100 euroko txartela Izurtzako Herriko tabernarako, 70 euroko txartela Mañariko Errekondo jatetxerako, eta 50 euroko txartela Larrinagatxu erretegirako.

Lehiaketekin batera, beste hamaika ekimen egongo da gozagai jaialdiko egunetan: antzezlariak, laburrak, musika, azoka, dantza saioa...

Ardi txakur erakustaldia

Jaietako ekimen batzuk herri-gunean dira. Esaterako, zapatuan, 19:00etan, patata tortilla txapelketa egingo dute; ondoren, herri afarian batuko dira eta Xaiborren musikak jai-giroa ipiniko du. Domeka goizean beste ekimen berezi bat dago. 11:30ean arraza libreko ardi txakurren erakustaldia izango da frontoi atzeko belardian.



Etxaburutarren dorrea.

Etxaburutarren dorrera bisita

J.D. IZURTZA

Gerediaga Elkartek Urkiola Landa Garapenagaz batera Durangaldea ezagutzeko antolatu dituen bisita gidatuetatik hurrengoa Izurtzan izango da, zapatu arratsaldean. Etxaburutarren dorrea ezagutuko dute. Izen ematea beterik dagoela azaldu dute antolatzaileek. 30 lagunek parte hartuko dute Izurtzako bisita gidatuan.

Emakumeentzako irakurketa kluba egingo dute Atxondon

J.D. ATXONDO

Aurtun ere emakumeentzako irakurketa kluba izango da Atxondon. Urritik maiatzera, hilero eguazten batean elkartuko dira liburutegian, 16:30etik 18:00etara. Mireia Delgado Exposito pedagogo, feminista, birtartekari literario eta ipuin kontalaria gidatuko du irakurketa kluba. Parte hartzaileek

hilean liburu bat irakurriko dute, eta, ondoren, saioetan liburu horri buruz elkarrengaz gogoeta egiteko aukera izango dute.

Saioak egiteko aurreikusita dauden datak honako hauek dira: urriak 22, azaroak 19, abenduak 17, urtarrilak 21, otsailak 18, martxoak 18, apirilak 21 (martitzena) eta maiatzak 20.

Izen ematea hainbat modutara egin daiteke: liburutegian, liburutegia@atxondo.eus helbide elektronikoan eta 697 196 748 telefonoan.

Askotariko kirol ikastaroak antolatu dituzte Mañarian

Ikastaro berri batek bakoitzaren beharretara egokitutako entrenamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditu

J.D. MAÑARIA

Udalak antolatuta, Mañarian askotariko kirol ikastaroetan parte hartzeko aukera dago irailaren 29an hasiko den astetik aurrera. Ikastaro hauek daude aukeran: mantentze-gimnasia,

GAP, HIIT, yoga, stretching, pilates eta GIM entrenamendu gidatua. Azken hori nobedadea da eta entrenamendu programa pertsonalizatua eskaintzen du, bakoitzaren beharrianetara egokitutako plan batez. Ikas-

taroak probatu gura dituenarentzat atek irekitzeko jardunaldiak ere egingo dituzte, irailaren 15ean eta 16an.

Horrez gainera, joskintza ikastaroa ere badago aukeran. Urriaren 2tik aurrera dira saioak, eguen eta barikuetan.

Ikastaro guztietarako izen ematea irailaren 22tik 26ra bitartean izango da. Mañariarrek izen emate aurreratua egin dezakete, irailaren 19an. Ikastaro guztiei buruzko informazio gehiago udaleko webgunean eskuratu daiteke.

Betikoak
flexografía

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



Onen Zaintza eta Tratamendua
ibilkeraren azterketa biomekanikoa
neurria egindako plantilak

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel/Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulekuak:
Astelehena-ostirala: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Laruntza: 10:00-14:00 hurbila

944 14 80 36 | 620 18 30 30
Asteasu ibar bidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (TERO) ETA CBCT

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskumak
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopatia.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**



Helduak-nerabeak-haurrak

• Zure buruan konfiantza sendotzeko •
• Estresa kudeatzeko •
• Zure hamermanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAIA ZABALA
AIZMENDI
11567 xol. 19



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA •
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO
ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA •
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIBRO
IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKOPEN LENTEAK •
• DITO-K ETIA MIOPAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometrizentroa.com

El Carmelo parkea zabaldu dute Zornotzan

Zornotzako El Carmelo parkea goitik behera aldatu eta herritarrei zabaldu diete aste honetan; hain zuzen ere, El Carmelo ikastetxearena zen eremua, eta udalari utzi dio parkea egiteko; gunea egunero egongo da zabalik, 07:00etatik 23:00etara

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Historikoki El Carmelo ikastetxeari lotuta egon den El Carmelo parkea eremu publiko berria da aste honetatik aurrera. Hain zuzen ere, ikastetxeak eremua udalari utzi eta gero, goitik behera aldatu eta berdegune berria zabaldu dute zornotzarrentzat. "Zornotza auzoak eta berdeguneak dituen udalerria da. El Carmelo parkea zabalduta, beste urrats bat eman dugu herri eredu irisgarriagoa, jasangarriagoa eta zornotzarren bizi kalitatea lehen-tasun eta ardatz izango duena eraikitze konpromisoan. Parke hau paseatzeko, atsedean hartzeko, topaketarako eta gure inguruez gozatzeko lekua izango da", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Parkea eguaztenean inauguratu eta gero, egunero erabili ahal izango da, 07:00etatik 23:00etara.

Obra urte hasieran hasi zutuzten eta ia bederatzi hile iraun dute. Guztira, 400.000 euro behar



Udaleko eta El Carmeloko ordezkariak.

izan dituzte parkea guztiz eraldatzeko. Oinezkoentzat hiru sarbide berri sortu dituzte, ibilbide nagusi bi diseinatu dituzte, eta bertan landaredia eta altzariak ipini dituzte. Udalak eskerrak eman dizkio El Carmelo ikastetxeari eta hau-

xe gaineratu du: "Elkarren arteko lankidetzari eskerrak Zornotzak berdegune berri bat du gaur, herritar guztiei zabalik dagoena. Horrelako keinuek hezkuntza-komunitatearen eta udalerrri osoaren arteko lotura indartzen dute".



Zornotzako Udaleko, Jaurilaritzako eta ETSko ordezkariak.

Bernabeitiko pasabide berria "laster" egongo da erabilgarri

Zornotzako Bernabeitia auzora sartzeko pasabide berria errealitatea izatear da, eta trenbide pasagunea iragana

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Lanen azken fasean, udaleko, Eusko Jaurilaritzako eta Euskal Trenbide Sareko ordezkariak Zornotzako Bernabeitia auzoko lanak bisitatu dituzte. Epe zehatzik eman ez duten arren, "laster" zabalduko dute auzora sartzeko pasabide berria, eta, horrela, bide batez, trenbide pasagunea kendu. Lanei eskerrak, auzotarren bizi-modua hobetu egingo da, Susana Garcia Chueca Mugikortasun Jasangarriaren sailburuaren berbetan. "Igarobidea seguruagoa izango da orain. Segurtasuna eta erosotasuna lehentasuna dira

Jaurilaritzarentzat. Ezin ditugu bete barik utzi landa eremuetako bizilagunen eskakizunak", azaldu du. Prentsagaz egindako bisitan, sailburuak ez ezik, Miguel Ángel Paez sailburuordeak, Antonio López ETSko zuzendari nagusiak eta Anartz Gandiaga Zornotzako lehen alkateordeak parte hartu zuten.

2020-2025 tartean, ETSk hama-sei trenbide pasagune kendu dituela azpimarratu zuten prentsaurrekoan; horietako hamar, Bizkaian. Hain zuzen ere, orain hile batzuk Euban antzerako prozesua egin zuten.

Elorrioko liburutegiko irakurketa taldeak urrian hasiko dira

Euskarazko eta gaztelaniazko literatur solasaldiak hilean behin izango dira, eguaztenetan, udal liburutegian



Artxiboko irudia.

A. M. ELORRIO

Elorrioko udal liburutegiko irakurketa taldeak urrian hasiko ditu ikasturte honetako saioak; 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu dezakete. Euskarazko eta gaztelaniazko literatur solasaldiak hilean behin izango dira, eguaztenagaz, eta Mikel Antzak eta Monica Quijanok dinamizatuko dituzte, hurrenez hurren. Bestalde, ingelesezko English Reading Cluba hile birik behin batuko da; Joseph Riopelle elorriarrak gidatuko du talde hori. Parte hartzaileei liburutegiak eskainiko dizkie ikasturtean zehar irakurgai diren liburuen.

Bestalde, bederatzi urtetik gorako umeentzat, Oihana Etxegibelek Berba parranda ekimena dinamizatuko du. Dagoeneko eman daiteke izena ekimenetarako.

Jabekuntza ikastaroetarako izen ematea, martxan, Berrizen

Martxan dira ikasturte honetako Berrizko jabekuntza ikastaroak; abenduaren 17an amaituko dira

A. M. BERRIZ

Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak martxan jarri ditu urtea amaitu arteko jabekuntza ikastaroak. Izena emateko, *berdintasuna@berriz.eus* helbidera idatzi behar da, edo 94 682 45 25 edo 603 837 471 telefonoetara deitu. "Eskaintza anitza eta doakoa da, eta berdintasuna ikuspegi feministatik bultzatzea du helburu", azaldu dute udal iturriek. Miriam Herbon eskaintzen dabilen *Mujeres Sabias* ikastaroa izan da goiztiarrena; irailaren 10etik da martxan. Zabalitzen-Sartuk alfabetatze eta

ahalduntze ikastaroa emango du emakume migratzaileentzat; klaseak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, astelehen eta eguaztenetan. Beste proposamen bat Ehuleak tailerra izango da; aurreko urteetako arrakasta ikusita, udalak errepikatzea erabaki du. Eskaintza borobiltzeko, Nahia Alkortak *Amatasun feministak, idealetatik errealitate* tailerra gidatuko du; lau saio izango ditu.

Urtea amaitzeko, lehenengoz, ikastaroetako parte hartzaileek askaria egingo dute abenduaren 17an.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

anboto
kide

**Ikasturte hasierarekin batera,
atera etekina Anbotoren
abantaila eta deskontuei!**

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea
%15 eko deskontua saio solteetan.

**HITZ
LIBURU-DENDA**

%10eko deskontua euskarazko liburuetan.

**IURRETA
KOPISTEGIA**

%5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
%5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

**PSIKOLOGIA
AMOREBIETA**

%20ko deskontua zerbitzu guztietan.

**URRIKE
LIBURU-DENDA**

%5eko deskontua liburuetan.
%10eko deskontua papergintzan.

**URTXINTXA
JOSTAILU DENDA**

%5 eko deskontua erosketa guztietan.
%10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.



**Atera
etekina
txartelari!**

**Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558**

Deitu eta
eman izena!



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Erosketa bonuak urriaren 8ra bitartean erabili daitezke

Abadiñoko Udalak martxan ipini du erosketa bonuen kanpaina. Guztira, 50.000 euro erabiliko dituzte



Edurne Maguregi, Lorenzo Santiago, Marije Medela eta Mikel Urrutia.

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Dagoeneko martxan da Abadiñoko erosketa bonuen kanpaina; guztira, 34 komertzioaren babesagaz. Beste urte batez, kanpaina honetan udalak 50.000 euro erabiliko ditu herriko merkataritzari bultzada emateko. Mikel Urrutia Abadiñoko alkateak eta Edurne Maguregi alkarteordeak jakinarazi dutenez, kanpainak merkataritza-sarea indartzea, bezeroak dinamizatzea eta udalerriko kolektiborik zaurgarrienei laguntzea du helburu.

Kanpainak berrikuntza nagusi bat izango du aurrean: aparteko 200 bonu berezi gordetako dituzte, Gizarte Ongizateko udal teknikariek kudeatuko dituztenak. Bonu horiek egoera ekonomiko edo sozial zaurgarrian dauden pertsonentzat izango dira.

DJ Bull eta patata dantza Pijama eta Kamisoi Egunean

Asteburu honetan Aitte Kurutzeko jaiak ospatuko dituzte Abadiñon. Domekan Mozorro Eguna izango dute

M.Z. ABADIÑO

Beste urte batez, heldu da pijamak eta kamisoiak kalera ateratzeko eguna. Donien Atxa jasota hasiera emango diote, gaur arratsaldean, Aitte Kurutzeko jaiei Abadiñon. 20:00etan parrillada egongo da, Errota Erromeria taldeak girotuta, eta, ondoren, patata dantza eta DJ Bullen saioa egongo dira. Zapatuan, umeen jolasak, tortilla txapelketa eta Danel Sarasua bakarlaria egongo dira, besteak beste. Mozorro Egunagaz eta maleta sikuagaz emango diote amaiera jaiei.



Aitte Kurutzeko jaiak. artxiboko irudia.

Astolako igerilekua itxita urriaren 5era arte

Igerilekua lau astez egongo da itxita. Eta gimnasioa astebete, irailaren 15etik 21era

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udala astelehenean hasi zen Astolako udal igerilekuko arazketa sistema berriren. Udalak osorik berriztu gura ditu araztegiak, ekipamenduak hobeto antolatzeko eta modernizatzen. Era berean, zaharkitutako makineria ordezkatzegaz batera, eragin-kortasun energetikoa hobetu gura dutela azaldu dute. "Beharrezko jarduera bat da; izan ere, gaur egungo araztegiak euren bizitza erabilgarriaren amaierara heldu dira", esan du udalak.

Bestalde, udalak jakinarazi du azken urteetan udaberrian egin izan den igerilekuen mantentze-lanen urteko geldialdi teknikoak obrek irausten duten bitartean egingo dela, "erabiltzaileei ahalik eta gutxien eragiteko asmoz". Hori horrela, irailaren 15etik 21era gimnasioa ere itxita egongo da.

Euskara ikasleentzat diru laguntza Mallabian

M.Z. MALLABIA

Herriko euskal hiltunen kopurua handitzeko eta helduen euskalduntzea bultzatzeko helburuagaz, Mallabiko Udalak beka deialdia ipini du martxan 2024-2025 ikasturterako euskara ikastaroetan parte hartu duten herritarrentzat. Mallabian errolatuta dauden eta udal euskal-

tegietan, euskaltegi pribatuetan edo barnetegi homologatuetan ikastaroak egin dituzten herritarrek jaso dezakete diru laguntza. Horretarako, eskolen % 75era joan direla egiaztatu beharko dute. Ezingo dira onuradun izan Hizkuntza Eskola Ofizialean edo IRALE, IVAP edo antzeko programetan parte hartu dutenak. Eskaera aurkezteko epea 2025eko urriaren 31n amaituko da, eta ebazpenak gehienez azaroaren 28rako jakinaraziko direla esan dute.

Against You, Ganibet, Tatxers eta Alarma Morea, sanmigeletan

Iurretako Jai Batzordeak kultur eskaintza zabala batzen duen egitaraua osatu du; irailaren 20an hasiko dira jaiak

Aitziber Basauri IURRETA

Sanmigelak ate joka dituzte Iurretan. Eta dagoeneko Jai Batzordeak aurkeztu du aurtengo ediziorako prestatu duen egitaraua. Ohiturari eutsita, Montoitik jaurtitako txupinazioagaz emango diete ondoetorria jaiei, irailaren 28an. Dena dela, aurretik ere izango da zertaz gozatu. Sortzaile feministen azokak ekingo dio egitarauari, irailaren 20an, eta irailaren 26tik urriaren 5era kultur eskaintza zabala izango dute Iurretan.

Azken urteetako bideari jarraituta osatu du sanmigeletako egitaraua herriko hainbat elkarte eta eragile batzen duen Jai Batzordeak. Against You, Ganibet, Tatxers eta Alarma Morea taldeek joko dute, irailaren 27an eta urriaren 3an. Eta tradizio handiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo Iurretan: Pirritx eta Porrotx pailazoen, bertso jaialdiak, nekazaritza azokak, Iurretako mendi martxak, Ahari bizikleta martxak eta dantzarien saioak, besteak beste.



Iurretako Jai Batzordeko kideak, Saioa Aginakok sorturiko jaietako kartelagaz.

Nobedadeen artean, kuadrillen ikuskizuna egingo dute Mozorro Egunean. Urriaren 4an, herria zirku bihurtuko dute eta horren barruan Jai Batzordeak gonbit egin die kuadrillei abesti bat aukeratu eta ikuskizun bat prestatzera, "denon artean Iurretako Zirkua sortu ahal izateko". Pintxo

lehiaketa ere egingo dute eta Durangoko Orfeoia kontzertua emango du. Jai Batzordeak esan du ez duela inolako eraso sexista, homofobo edo arrazistarik onartuko, eta jaietarako protokoloa landuko dutela. Palestinaren aldeko elkarretaratzea ere egingo dute.

Hiri-mugikortasunari buruzko azterketa egingo dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Otxandion hiri-mugikortasunari buruzko diagnostika egingo dute datozen hileetan, udalak jakinarazi duenez. Garraio publikoaren eta pribatuaren erabilera, azpiegituren egoera eta herritarren mugikortasun-ohiturak aztertzea da helburua. Era berean, dauden mugikortasun ereduak identifikatu gura dituzte, eta herritarren ohiturak, beharrianak eta zailtasunak ezagutu, gaineratu dutenez. Azterketa egiteko, inkestak eta bestelako partaidetza tresnak erabiliko dituzte.

Jasotako emaitzak oinarri izango dira etorkizunean egin beharreko jarduketak planifikatzeko.

Iurretako kofradiek Laixiar Eguna ospatuko dute domekan

Kofradien batzar nagusiagaz hasiko dute eguna. Ondoren, dantzariak, bazkaria eta erromeria egongo dira

A. Basauri IURRETA

Iurretako kofradiek euren egun handia izango dute domekan, Laixiar zelaian. Herriko sei kofradiek –San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Iurreta eta Orozketa– LII. Kofradi Eguna ospatuko dute, Iurretako Kofradien Batzordeak antolatuta. Kofradien batzar nagusiagaz hasiko dute eguna, 12:00etan. Kofradietako ordezkariak aurtengo kontuak jakinaraziko dituzte, eta, horren ondoren, jai giroa nagusituko da Laixiar zelaian.

Jolasak eta erromeria

Kontu ematea amaituta, herriko dantzariak saioa egingo dute, eta, jarraian, igel txapelketa hasiko dute. Eguerdian, Laixiarrrera bertaratutakoak bazkaltzeko elkartuko dira.

Arratsalderako ere antolatu dituzte ekintzak Kofradi Eguna ospatzeko. Umeentzako jolasak egongo dira, eta Mirari eta Izarra plaza taldeak erromeria giroa zabalduko du Laixiarren. Jai giroa nagusi izanik, bat-batean plazara irtengo denik ez da faltako, urtero legez.

Euskal Herriko ardi txakurrik onenen lehia Garain, zapatuan

10 bikote lehiatuko dira; tartean, eskualdeko ordezkari bakarrak: Karlos Ardanza abadiñarra eta Mendi txakurra

Ekaitz Herrera GARAI

Garaik Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa hartuko du zapatuan, irailak 13. 11 txakurrek parte hartuko dute artzainen esanetara. Iazko garaileek, Javier Zubiaurrek eta Mendik batetik, eta herrialdekako txapelketetako onenek bestetik. Fidel Alonso eta Lis (Araba), Jose Mari Jauregi eta Sua (Araba), Karlos Ardanza eta Mendi (Bizkaia), Marcos Aspizua eta Negu (Bizkaia), Juan Jose Egurrola eta Baserri (Bizkaia), Aitor Tato eta Fidel (Gipuzkoa), Javier Zubiaurre eta



Parte hartzaileak iaz, Axpen.

Argi (Gipuzkoa), Jose Mari Bengoa eta Zeu (Gipuzkoa), Jesus Razkin eta Mendi (Nafarroa) eta Jorge Oteiza eta Lagun (Nafarroa). Txapelketa 17:00etan hasiko da, Aiertza aldeko zelaian.

Jatorrira buelta

Euskal Herriko Ardi Txakurren Txapelketa Garain antolatu zen lehenengoz, 1973ko irailaren 13an. Zuhatzako Jesus Azpiazu eta Mendi txakurra (Aiara, Araba) izan ziren irabazleak. Orduetik hona 52 urte igaro diren arren, 57. edizioa izango da aurtengoa. Ez da Garaik txapelketa hartu duen lehenengo aldia. 1981ean, 1988an, 1997an, 1999an, 2021ean eta 2023an egin da bertan. Azken urteotan, Garaik eta Atxon dok txandaka hartu dute txapelketa.

PABILIOIA SALGAI
Iurretan, Mercadona ondoan

1.190m²

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73
Mug.: 649 40 26 23
zarateylexpe.com

Argazki lehiaketan botoa emateko aukera martitzenetik aurrera

Oraindino, irailaren 15era bitartean, aukera dago argazkiak Udako Argazki Lehiaketan ipintzeko

M.Z. DURANGALDEA

ANBOTOk antolatzen duen Uda-ko Argazki Lehiaketa azkenengo fasera heltzen dabil. Irailaren 16tik irailaren 24ra bitartean, argazkirik gogokoenei botoa emateko aukera egongo da *www.*

anboto.org webgunean. Horren aurretik, baina, irailaren 15era arte, oraindino aukera egongo da argazkiak lehiaketara aurkezteko. Durangaldeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpokoak sarituko dira.



Argazki lehiaketara aurkeztutako argazki bat.

DURANGALDEA ASTEON

Santa Katalinako jaiak ospatuko dituzte Garain

GARAI Urtero lege, irailagaz batera, Santa Katalinako jaiak ospatuko dituzte Garain. Zapatuan jasoko dute Donien Atxa, 20:30ean. Domekan meza izango dute, 11:00etan, eta dantzariak eta luntxa gero.



Unai Esturo eta Maite Irizar. FELIPE LOIOLA

Unai Esturo dantzari iurretarra Arrateko Dantzarien Kofradiako kide izendatu dute

IURRETA Eibartarrek Arrateko Amaren eguna ospatu zuten astelehen, Arrateko dantzarien egun handia. Eibarko Kezka dantza taldeak gonbidatuta, Unai Esturo iurretarrak eta Maite Irizar oñatiarrak parte hartu zuten. Arrateko Dantzarien Kofradiako kide berriak dira dantzari biak. Aurretik, 2016an, Karmelo Angiozar berriztarrak ere jaso zuen gonbidapen hori, eta dantzarien kofradiako kide izendatu zuten.



Bertso afaria Urkiolan Iturriagagaz eta Elortzagaz

ABADIÑO Urkiolako hotelak bertso afari berezia antolatu du bariku honetarako, irailak 12, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak plazarik plaza orain 35 urte hasi zirela ospatzeko. Bertso afarira joateko, ezinbestekoa da aurretiaz izena ematea. Afaria 21:00etan hasiko da.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua




ZENBATU

Zenbatu ondoko kaktus hauek.



LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu.



MARGOTU

Margotu gurago duzun moduan



Aritz Maldonado ABADIÑO

Ediziorik edizio bizi dira Sugaar musika taldeko kideak. Horrela, aurtengorako astebate pasatxo falta denean, solte geratu diren kontuak fintzen dabiltza antolatzaileak. Hala ere, bosgarrena izango den hurrengorako ideia sorta bat dutela buruan onartu dute Miguel Ángel Rodríguezek eta Oier Albizuk.

Gogotsu zaudete laugarren edizio honetarako?

Miguel Ángel Rodríguez: Urtebetean prestatzen egon eta gero, eta sartu ditugun ordu guztiak sartu eta gero, bai, prest gaude; azken orduko urduritasun puntu hori dugu, baina gogotsu gaude. Eguna heltzeko zain gaude, jendea gozatzeko ikusteko, ze, azken finean, horretarako egiten dugu hau, festa bat izateko, dena ondo irteteko, jendeak gozatzeko, eta, batez ere, metalaren kultura bultzatzeko. Aspalditik datorren kultura da Euskadin, baina badirudi denboragaz galdu egin dela apur bat. Metalaren kultura inguru honetan berpiztea da gure asmoa.

Egun biko jaialdia izatetik egun bakarrekoa izatera bueltatu da. Horrez gainera, irailera aldatu duzue data. Zergaitik?

Oier Albizu: Hainbat arrazoi dago. Garrantzitsuena, ekainean, aurreko edizioak egin diren garaian, beste musika jaialdi askogaz lehiatu behar genuela, bai genero berdinekoekin, baita beste batzuetakoekin ere. Handien aurka lehiatzea oso gatxa da, eta gu jakitun gara jaialdi txikia garela; horrek bere desabantailak eta abantailak ditu. Iaz, adibidez, Azkena Rock jaialdia gure aste-buru berean izan zen, eta antzeko datetan egin ziren Resurrection Fest, Rock Imperium eta Rock Fest; bestalde, metalzale modura ere, guk horietara joan gura genuen, eta, beraz, arrazoi bi horiek dira nagusiak: besteekin ez lehiatzea eta haietara joateko gogo. Uste dugu badagoela tokia denontzat, eta data aldatzea erabaki genuen. Gure ustez, irailaren 20a data egokia da. Eguraldi ona egiten du oraindino eta ez dago hainbeste eskaintza. Egun bitik batera igarotzeko erabakia horren ondorio da. Egun bi askotxo zen, ekonomikoki ere murrizketak izan ditugulako. Egun

"Metalaren kultura berpiztea da gure asmoa"

MIGUEL ÁNGEL RODRÍGUEZ ETA OIER ALBIZU SUGAAR MUSIKA ELKARTEKO KIDEAK

MUSIKA Koba Live musika jaialdiaren laugarren edizioak egun bakarra izango du, baina metal doinuak egun osoan zehar entzungo dira Abadiñon irailaren 20an



Miguel Ángel Rodríguez eta Oier Albizu.

bakarra izan arren, goizetik hasiko dugu eguna, eta zortzi talde igaroko dira taula gainetik. Egun bakar hori indartzea bilatu dugu.

M. A. R.: Ekonomikoki murrizketak egon diren arren, ez dugu gura horrek kalitatean eragitea. Beti ahalegintzen gara inguru hauetan ikusten ez diren taldeak erakartzen, sarritan kanpotik, eta aurtengo kasuan, adibidez, Ehun Kilo ekarriko dugu. Orain urte bi Primal Fear taldea ekarri genuen, eta iaz Metalium, zazpi urtean jo barik zegoen taldea. Uste dut oreka bat lortu dugula eta jaialdi ona prestatu dugula.

Kartela askotariko taldeek osatzen dute.

M. A. R.: Ez dugu genero, talde edo eremu konkretu batera mugatu gura. Antolakuntzan hiru lagun gaude gaur egun, eta oso gatxa da hiruroi gustatzen zaigun zeozer ekartzea. Publikoa dugu buruan zer ekarri erabakitzerakoan. Gugaitik balitz, estilo aldetik itxiagoa izango litzateke, baina zabaltzea gura dugu. Euskaraz abesten duten taldeak ekartzen ere ahalegintzen gara.

"GASTU EKONOMIKOA MUGATU BEHAR IZAN DUGU, BAINA HORREK EZ DU KALITATEAN ERAGINGO"

O. A.: Estilo aldetik ere egiten dugu ahalegina. Oraingoan hard rockak, heavy metal klasiakoak eta death metal melodikoak izango du lekua. Metalaren barruan ere doinu desberdinak daude eta bat bakarra ez aukeratzen ahalegintzen gara.

M. A. R.: Zuzeneko ona duten taldeak kontratatzen ere ahalegintzen gara. Aurrelan bat egiten dugu horretarako. Kontua ez da publikoak berak animatzea eta hauspotzea taldeak. Jaialdi batean alderantziz izan behar du eta zuzeneko ona duten taldeak ekartzea lehenesten dugu Koban.

Murrizketa ekonomikoak aipatu dituzue. Eta doakoa izatetik ordainpekoa izatera igaro zen jaialdia. Murrizketengaitik izan da?

O. A.: Aurreko urteetan diru laguntzak jaso ditugu. Batzuetan, Abadiñoko Udalaren kasuan legez, urtero, baina beste batzuen partetik ez. Foru Aldundiak, adibidez, lehenengo urte bietan eman zigun diru laguntza. Bestalde, Sugaar musika elkarteak irabazi asmorik bako elkarteak da eta hiru kidek osatzen dugu. Inguruan laguntzen digun jende asko dugun arren, batez ere jaialdiaren egunetan, urte osoan zehar hiru kide baino ez gaude. Gainera, hasieratik gure poltsikotik ipini behar izan dugu dirua, eta oraindino ere ipintzen dugu.

M. A. R.: Urterik urte diru gehiago ipintzen joan gara eta egunen batean jaialdi autosufiziente bat izatera heltzea gustatuko litzauguke. Horregaitik mugatu behar izan dugu gastua zeozertxo. Ez dugu gura horrek jaialdiaren eta taldeen maila kaltetzea. Jaialdia hobetzen joan gara urterik urte. Kontrakoa gure printzipioen kontra joango litzateke.

O. A.: Doako jaialdia egitea gura genuke, baina tamaina honetako jaialdien gastuak oso handiak dira eta ezin duzu eguraldiaren menpe utzi. Horregaitik erabaki genuen jaialdiaren sarrera ordainpekoa izatea. Horrez gainera, jarraitzaileak fidelizatzeke ere egin dugu. Jendeak konpromisoa hartzen du horrela, euria egin zein beroa egin. Uste dut, gainera, sarrera ondo dagoela prezio aldetik. Jendeak ulertu behar du horrelako ekimen bat ezin dela doan egin.

Giza Biblioteka antolatu dute Iurretan, lehenengoz

BIBLIOTEKA Asteon, Herri Bibliotekak eta Gizarte Ongizatearen eta Berdintasunaren Sailak Ikasturte berrirako ekintza eta ikastaroak aurkeztu dituzte Iurretako Ibarretxe kultur etxean; nobedade nagusi bat aurkeztu dute: Giza Biblioteka

Aitziber Basauri IURRETA
Ibarretxe kultur etxean, ikasturte berrirako prestaturiko ekintza eta ikastaroak aurkeztu dituzte aste honetan. Kultur etxeak, Herri Bibliotekak eta Gizarte Ongizatearen eta Berdintasunaren Sailak elkarlanean antolatu dute. "Era transbertsalean landutako eskaintza zabala da eta urrian hasiko da, nobedade nagusi bategaz: Giza Biblioteka", azaldu du Zorione Fundazuri alkateordeak. Ikastaroetan 850 plaza eskainiko dituzte, eta 50 bat di-ziplina egongo dira. Ikastaroak urriaren 13an hasiko dira eta Iurretan errolatutakoentzat irailaren 10ean zabaldu zuten izena emateko epea.

Herri Bibliotekak 23 ekintza prestatu ditu ikasturte berriari begira; horien artean, lehenengoz antolatuko den Giza Biblioteka. "Bibliotekaren Egunaren harira egingo den ekintza izango da, Iurretaren kultur aniztasuna kontuan hartuta. Jatorri asko-



Udal eta kultur ordezkariak, prentsaurrekoan.

tariko pertsonen ibilbidea eta testigantza jaso eta partekatze-ko aukera eskainiko da", azaldu zuen Ziortza Onaindia liburutegiko arduradunak. Jabekuntza Eskolaren bitartez, Dantza Fitness eta Brikolea ekimenak

ere eskainiko dituzte, eta Amaia Legorburu gizarte teknikariak argitutakoaren arabera, *Zapore anitz* sukaldaritza topaketak ere egingo dituzte, kultur aniztasuna bultzatzeko ekimenen artean.



Txalap.ART konpainiako kideak. TXALAP.ART

Txalap.Art umeentzako ikuskizun bategaz ausartu da

MUSIKA Durangoko San Agustin kulturgunean 'Babes' ikusteko aukera bikoitza egongo da irailaren 21ean

A. M. DURANGO
Txalap.Art euskal konpainia publiko guztiarentzako ikuskizun bategaz ausartu da: *Babes*. Irailaren 21ean Durangoko San Agustin kulturgunean ikusteko aukera bikoitza egongo da, 17:00etan eta 18:00etan. Kristof Hiriart arduratu da obra zuzentzeaz, eta bere aginduetara ipini ditu Oreka TX-ko Arkaitz Mtez. de San Vicente eta Igor Otxoa txalapartari trebeak, eta Thierry Biscary kantari eta perkusionista hendaia. Ibilbide luzeko artistak dira hirurak, baina, euren esanetan, urrats garrantzitsua eman

dute obra honegaz. "Formatu handietan jokatzetik formaturik intimoenera pasatu nahi izan dugu, eta gure *acting*-a, mugimendua, perkusioa eta kantua eraman nahi diegu bizitza honetan ibilbidea eta euren nortasuna eratzeko ari diren pertsonen", azaldu dute taldekideek.

Sarrerak salgai
Bestalde, urtea amaitu bitartean San Agustin kulturgunean egingo diren emanaldi guztietarako sarrerak salgai daudela azaldu du Durangoko Udalak ohar baten bitartez.



GAI LIBREAN

AINHOA ZABARTE NARBAIZA BEHARGINA

Itzulerak

Eguzkiak gogor berotu ditu herriko kaleak. Berotu ditu kanpoak eta barrualdeak. Uda eskasa, traketsa izan zela iazkoa zioten batzuek: "Berorik ez". Aurtengoan, aldiz, infernuko epeletan legez iragan ditugu abuztu erdialdeko egunak.

Itzuli da iraila, eta berarekin batera iratzargailuaren dantza. Oinetako azazkalei pintura kentzeko unea. Ilea erortzeko sasoia. Izotzik gabeko kafe beroa eta afaltzeko pureak. Sofa eta manta. Kiroldegirako buelta. Datek hala aginduta, bete da beste urte batez hustuta egon den herria. Itzuli da jendea, kotxeak eta zarata kale isiletara. Gaur, plazan elkartu dira denak.

Europar zehar ibili da lehena, mendi ikusgarrien barranean. Atrakzio parke handietan gora eta behera. Lakueta bainatu, zenbait hizkuntza entzun, bizikletan ibili eta bigarren etxea duen autokarabanan lo egin. Hila-bete inguru eman du kanpoan, gurasoen oporraldia. Urteroko bidaia, urteroko destino ezezagun batean.

"ITZULI DA IRAILA, ETA BERAREKIN BATERA IRATZARGAILUAREN DANTZA"

"ELKARREKIN EGON, JOLASTU, MALTZURKERIA BAT EDO BESTE EGIN ETA IKASTURTE BERRIARI EKITEKO GOGOTSU DAUDE"

Herriko kapitain zaindaria izendatu dute bigarren. Gustura aritu dira herriko ur-txorrotetan jolasean, jenderik gabeko herri hutsean ezkutaketetan. Uda herrian igaro duten haur sahararrak izan ditu lagun. Iazko udatik ezagutzen zuten elkar eta hurrengo udan elkartuko diren esperantzan, pena handiz agurtu dira abuztu amaieran.

Kanpinean igaro ditu bi aste hirugarrenak. Eta ondoren, nola ez, urteroko zita: familiaren herria. Bertan pasatu du gainerako oporraldia. Senideak ikusi eta urteroko udako kuadrillarekin ibili. Herri txikiko jaiak, igerilekuan jauziak eta erreka harri jaurtiketak. Nostalgia handiz hurrengo urtera arte agurtu ditu kuadrillakoak.

Herriko plazan daude hirurak, elkarren gogoz zeuden. Elkarrekin egon, jolastu, maltzurkeria bat edo beste egin eta ikasturte berriari ekiteko gogotsu daude. Haur askok bezala, itzulera eta eskolara joateko gogo dute. Hala, ikastetxerako bidea hartu dute, lehen eguna. Galdetu diete ea nondik nora eta nola ibili diren udan.

ELORRIOKO JAIK 2025

IRAILAK 12

09:15 Zirkularra Elorrio
(Plaza-San Roke-San Jose-Autokarabana Gunea-Arraiarte-San Agustin-Kurutxondo-Plaza-Kiroldegia-Txanberi-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San Juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-Plaza)
Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkartea

11:30 Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilikan.

13:00 Kopaua jubilatuentzat eta ibiltarientzat. Aldatsekuan.

18:00 Elorrioko buruhandiak. Plazan.

18:00 Jubilatuentzako dantza. Aldatsekuan.

19:00 Zirkua 'Yugen'.
La Banda Teatro Circo. Urarkan.

20:00 'Hitaz Orhoit' ikuskizuna.
Kresala Dantza Taldea. Arriolan.

22:15 Suzko zezena. Plazan.

22:30 Kontzertuak txosnaguneak antolatuta. Plazan. *Tatxers SUNE*

00:00 Gaztetxean.
Jamaiketako Noseke

IRAILAK 13

8:00 Sukalki eguna.
Antolatzailea: Iturizoro elkartea. Aldatsekuan. Zatoz moxorroa jantzita!

11:30-14:00 16:30-19:00
Haur parkeak.

12:00-14:00 17:00-20:00
Txu-txu trena.

13:00 Bitsaren jaia.
Esteibarlandan.

16:00 Eingo plaza dantza eta euskal kanta. Aldatsekuan.

18:00 Txokolatada. Plazan.



SUNE

Elorrio Musika
Josune Arakistainek, Sune, kontzertua emango du gaur Elorrioko Ferixa Nausikoetan. Txosnaguneak gaurko antolatutako kontzertua Tatxers talde iruindarrak osatuko du.
Txosnagunean, 22:30ean

Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkartea.

18:00 Karrozen jaitsiera.
Aldatsekuan.

18:00 Disko Sound 4.
Plazan.

21:00 LIX. Idi proba txapelketa.
Probalekuan.

22:00 Gaztetxean.
Apotheke Neallta Fola

22:15 Suzko zezena. Plazan.

23:00 DJ Delko & DJ Sierritx.
Plazan.

23:00 Mariatxi Rumbo a Tijuana. Urarkan.

00:00 DJ gaua. Txosnagunean.
Natrixx + Kifi Boy Lamikiz Sierritx

IRAILAK 14

11:30-14:00 16:30-19:00
Haur parkeak.

12:00 Elorrioko kolore eta zapoak. Antolatzailea: ONG Kainabera GKE. Kanpokalen.

13:00 Herri kirolak. Plazan.

18:00 Bertso saioa: Aner Peritz, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Aldatsekuan.

19:30 "Haurreskolari" dantza ikuskizuna. Plazan.
Tio Teronen Semeak.

IZURTZAKO JAIK 2025

IRAILAK 12

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

17:30etik aurrera: - Artisautza azoka. - Enkajerak, Grafiti Live Larraka, Eko Karrusela, Arku-tiroa eta food truck Kemekomo & Gertu taberna. - Antzerki pildorak: Gertu kolektibaren 'Begi prest' eta Asier Kidamen 'Hurbileko Magia'.

18:00 Harri Orri Ar txapelketa,
Torneos Durangok antolatuta.

18:30 Zirkua: Cia Batacazo, 'Volar' ikuskizunagaz.

20:00 Antzerkia: Los Judas de la Impro, 'Impro Show' lanagaz.

21:00 Cumbia kontzertua: LFD Mambo Express.

IRAILAK 13 SANTO TOMAS EGUNA

10:00 Kalejira JAIZALEgaz.

GERTUFEST SANTO TOMAS PARKEAN

11:00etik aurrera: - Artisautza Azoka - Enkajerak, Grafiti Live Larraka, Eko Karrusela, Arku-tiroa eta food truck Kemekomo & Gertu taberna. - Antzerki pildorak: Gertu kolektibaren 'Begi prest' eta Asier Kidamen 'Hurbileko Magia'.

11:00 Klase irekia: Nanu del Gesso: 'Estiramientos'.

12:00 Kriskitin Dantza
Taldearen saioa.

12:30 Antzerkia: Lorena

Arangoaren 'Milagros & Valentina' ikuskizuna.

13:30etik aurrera, DJ KSKA eta piknik txapelketa.

19:00 Patata tortilla txapelketa
frontoian.

20:30 Tortillak aurkeztea.

21:30 Herri afaria.

22:30 Xaibor.

IRAILAK 14

11:30 Arraza libreko ardi txakur erakustaldia. (frontoi atzeko belardian)

13:30 Igel txapelketa, plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Mus txapelka, Argintxun. Gehienez 16 bikote. 3 jokotara.

17:30 Partxis txapelketa, plazan. Gehienez 16 bikote. 2 fitxara.



ASIER KIDAM

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 12

ABADIÑO Bertsoak
Bertso afaria Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin.
Urkiola hotelean, 21:00etan (Urkiola).

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Pijama eta Kamisoi Eguna.
Txopoaren bila kalejiran, 17:45ean,
Ferialekutik Andra Marira.
Txopoa jasotzea, 19:00etan.
Parrillada, 20:00etan.
Errota erromeria taldea, 20:00etan.
Umeen patata dantza (6 urtera arte),
20:30ean; gaztetxoena (7-14 urte),
22:00etan.
DJ Bull, gauerdian. Ondoren,
helduen patata dantza.
Zelaietan.

DURANGO Erakusketa
Durangaldeko Artista Elkarteak
antolatutako erakusketa kolektiboa.
Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 14ra bitartean.

DURANGO Erakusketa
'Ikusiezina baina ahaztezina.
Lurrinaren eta kosmetikaren historia'.
Arte eta Historia Museoa, irailaren 21ean.

ZAPATUA 13

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Umeen jolasak eta puzgarriak,
11:00etatik 14:00etara.
Meza, 12:00etan. Gero, pintxoak.
Kittu taldea, 18:00etan.
Txapelketarako tortillen aurkezpena,
21:00etan.
Ondoren, Danel Sarasua bakarlaria.
Zelaietan.

DURANGO Dantza
Dantz Point.
Landako Gunean, 18:00etatik 23:00etara.

DURANGO Bisita gidatua
'Arte al descubierto- Escultura pública'. Durangoko eskultura-
ondarea ezagutzeko ibilbidea.
(Izen ematea: Turismo Bulegoa / 94 603 39 38 / turismo@durango.eus).
Turismo Bulegoan, 10:30ean.

DURANGO Bisita gidatua
'Durango a traves de la historia'.
(Izen ematea: Turismo Bulegoa / 94 603 39 38 / turismo@durango.eus).
Turismo Bulegoan, 12:30ean.

GARAI Txapelketa
Euskal Herriko Ardi txakurren
Txapelketa.
Aiartzako zelaian, 17:00etan.

GARAI Santa Katalina jaiak
Donien Atxa jasotzea.
Santa Katalina auzoan, 20:30ean.

IZURTZA Bisita gidatua
'Etxaburutarren dorrea'. Gerediagak
eta Urkiola Landa Garapenak
antolatuta. (Izen ematea: 94 681 80 66 / gerediaga@gerediaga.eus).
Izurtza, 16:30ean.

IURRETA Bizikleta irteera
Lagara irteera. Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 09:00etan.

ZALDIBAR Zaldi Eguna
Zaldien harrera, 09:00etan.
Izen ematea eta Café Baquegaz
dastatzea, 09:30ean.
Martxaren irteera, 10:00etan.
Hamaiketakoa Gazagan, 11:30ean.
Poneyak umeentzat (12:00-14:00).
Herri bazkaria, 14:00etan.
Ranch Trail Novices lehiaketa,
16:00etan.
Ranch Trail Open lehiaketa, 18:00etan.
Sari banaketa, 20:00etan.
Olazarren.

ZALDIBAR Kontzertua
Gari. 30 urte.
Zaldia plazan, 21:30ean.

ZORNOTZA Kontzertua
Cuarteto Kare. Eleizetanen barruan.
Bernagoitiako San Migel elizan, 20:00etan (Autobusa doan, 19:00etan, San Migel Kalean).

ZORNOTZA Mendi ibilbidea
Boroako V. Mendi Martxa. (Izen ematea: 08:15-08:45).
Kamiseten banaketa eta hamaiketakoa, 12:30ean.
Bazkaria, 15:00etan.
Bolo txapelketa, 19:00etan (Izen ematea, 18:30etik 20:00etara).
Boroa auzoan, 09:00etan.



KRESALA KONPAINIA

ELORRIO Dantza
Kresala dantza taldeak dantza, musika eta poesia birikordatzen dituen ikuskizuna
egingo du gaur: 'Hiru'. Faustino Aranzabal da zuzendari artistikoa.
Irailak 12, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.

DOMEKA 14

ABADIÑO Aitte Kurutzekoak
Mozorro Eguna: Euskal Herriko
ohiturak.
Talde Batuak dantza taldea, 11:30ean.
Sama Siku fanfarrea, 18:00etan.
Maleta siku, 14:30ean.
AIKO erromeria, 16:30ean.
Azken kantak eta dantzak,
19:00etan.
Zelaietan.

ABADIÑO Azoka
Hileko bigarren domekako azoka.
Ander Alberdik ekoizleen
produktuekin zuzenean prestatutako
pintxoak eskainiko dira.
Txanporta plazan (10:30-14:00).

ELORRIO Bisita gidatua
'Zenita berdea' bisita. (Izen ematea:
94 682 01 64 edo 688 77 62 70 /
turismoa@elorrio.eus).
Elorrian, 11:00etan.

GARAI Santa Katalina jaiak
Meza, 11:00etan. Ondoren,
dantzariak eta luntxa.
Santa Katalina auzoan.

IURRETA Bizikleta irteera
Zubizabalera irteera. Txirrindulari
Elkarteak.
Iurretan, 09:00etan.

MAÑARIA Aitte Kurutzekoa
Meza. Ondoren, dantzariak eta luntxa.
Mañaria, 11:00etan.

ZALDIBAR Bisita gidatua
Zaldibarko Bainuetxearen iraganari
buruzko bisita, Zaldibarko Udalak
eta Gerediaga elkarteak antolatuta.
(Izena ematea: 94 681 80 66 /
gerediaga@gerediaga.eus).
Zaldibar dorrean, Olazarren, 10:30ean (gastelaniaz) eta 12:30ean (euskaraz).

ZORNOTZA Kontzertua
Halos Laukotea (Musikene).
Eleizetanen barruan.
Boroako San Pedro baselizan, 19:00etan. (Autobusa doan, 18:30ean, San Migel Kalean).

EGUENA 18

BERRIZ Kale antzerkia
'Eutsi, Ramon' (Trapu Zaharra).
Olakueta plazan, 17:00etan.

DURANGO Tailerra
'Glamourretik nostalgia: Perfumea
XX. mendeko ispilu (1940-1990)'
usaimen tailerra. Izena eman behar da.
Arte eta Historia Museoa, 18:00etatik 19:30era.

BARIKUA 19

DURANGO Goienkaleko jaiak
Txupinazoa eta aurrekua Ama
Birjinari, 20:00etan.
Ondoren, Sugarri Txaranga
Samsaya berbena, 21:00etan.
Parranda tabernetan, 22:00etan.
Goienkalean.

ZINEMA

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

El cautivo
Barikua 12: 19:45, 20:30.
Zapatua 13: 16:50, 19:00, 21:30.
Domeka 14: 16:50, 19:30.
Astelehena 15: 17:30, 20:15.
Martitzena 16: 17:30, 20:15.
Eguaztena 17: 19:00.

Jone, batzuetan
Barikua 12: 18:00, 20:30.
Zapatua 13: 17:00, 19:30, 21:30.
Domeka 14: 19:30.
Astelehena 15: 18:00, 20:15.
Martitzena 16: 18:00, 20:15.
Eguaztena 17: 19:00.

Acosada
Barikua 12: 20:30.
Zapatua 13: 21:30.
Domeka 14: 19:30.
Astelehena 15: 20:15.
Martitzena 16: 20:15.
Eguaztena 17: 19:00.

Lo que aprendí de mi pingüino
Barikua 12: 18:00.
Zapatua 13: 19:00.
Domeka 14: 17:00.
Astelehena 15: 18:00.
Martitzena 16: 18:00.

Super agente Hitpig!
Zapatua 13: 17:00.
Domeka 14: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Four letters of love
Barikua 12: 20:00.
Zapatua 13: 20:00.
Domeka 14: 20:00.
Astelehena 15: 20:15.

Pitufos
Zapatua 13: 17:00.
Domeka 14: 17:00.



GARAI Irteera
Añanako Gatz Aranera irteera, heldu
eta umeentzat. Trumoitte elkarteak
antolatuta (Informazioa: 688 674 564).
Garain.

MAÑARIA Kontzertua
Eñaut Elorrieta.
Elizan, 20:00etan.

ZALDIBAR Bertso afaria
Bertso afaria, Oihana Iguaran eta
Aner 'Euskitze' bertsolariekin. Izena
emateko azken eguna irailaren 16a.
Goierriko auzo etxean, 21:00etan.

"Banuen kezka lehengora bueltatzeko kapaz ote nintzen"

JUNE ARBEO SARRIUGARTE (1999, DURANGO) ATLETA

ATLETISMOA Gaixotasun batetik bueltan, apurka bere sasoirik onenera bueltatzen ari da atleta duragarra. Abuztuan zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako txapelketan

Joseba Derteano DURANGO

June Arbeo domina bat baino gehiago irabazitakoa da Espainiako txapelketako beheko mailetan. Baina abuztuan Tarragonan lorturiko zilarrezko domina berezia du, maila absolutuan eskuratzen duen lehenengoa delako. 3.000 metroko oztopotun proban eskuratu zuen, bere modalitate kutunean. Oporretatik bueltan, denboraldi berria prestatzen hasiko da Universidad Leon Sprint Atletismo taldean dabilen atleta duragarra.

Itxaroten zenuen dominen borrokan aritzea?

Podiumean sartzeko helburua nuen, bai. Denboraldi hasieratik nuen helburu hori. Aurreko hiletan zenbait lesio izan nuen, eta denboraldiko txapelketak ez ziren nik gura nuen moduan irten, baina banekien Espainiakora sasoi onean heltzen nintzena. Gero, ondo egon arren, lasterketan bertan gauzak ondo irten behar dira, eta, zorionez,



June Arbeo podiumean, zilarrezko dominagaz.

dena ezin hobeto joan zen. Oso pozik nago.

Zure denbora 10.02,52 izan zen, proba horretan duzun denborarik onenetik urrun: 9.44,83. Ez zen lasterketa azkarra izan.

Ez, hasieran erritmoa nahiko

motela izan zen. Egia esanda, lasterketa aurreikusita nuen moduan joan zen. Marta Serrano irabazleak maila handiagoa du, eta, itxaroten nuen lez, hasieratik bakarrik egin zuen aurrera. Nik gurago izan nuen neure

erritmora joan gainerakoekin. Neure burua zelan zegoen ikusi gura nuen. Eroso sentitu nintzen eta lasterketa erditik aurrera erritmoa bizitu nuen. Horri eskerrak lortu nuen domina.

lazko denboraldian ia ezin izan zinen lehiatu. Zer gertatu zitzaizun?

Iaz tiroideetan gaixotasun bat detektatu zidaten. Urte osoan botikak hartzen ibili nintzen eta ezin izan nintzen entrenatu eta lehiatu. Orain errekerupertuta nago, baina 2025a apur bat arraroa izan da. Txapelketetara gogo handiagaz joan naizen arren, hainbeste denboran kanpoan egonda kosta egiten da erritmoa hartzea eta txapelketei neurria hartzea. Ondo joan da, baina momentu batzuk ez dira errazak izan.

Geldialdiaren aurreko mailara helduko ote zinen kezka izan duzu momenturen batean?

Bai, kezka hori egoten da, normalean den moduan. Ez nekien gorputzak zelan erantzungo zidan, medikazioaren ondoren zelan egongo nintzen. Gainera, norbera geldirik dagoen bitartean, gainerakoak geroago eta marka hobeak lortzen dabilta-

la ikusten duzu, eta, jakina, dudak sortzen zaizkizu. Beraz, banuen kezka lehengora bueltatzeko kapaz ote nintzen. Zorionez, denboragaz eta lan egin da posible dela ikusi dut.

Zeintzuk helburu dituzu denboraldi berriari begira?

Denboraldi berriari begira ez dut helburu zehatzik ipini. Lehiatuz gozatzea, horixe gura dut aurtun, emaitzarik onenak modu horretara lortzen ditudala ikusi dut eta. Kontrakoa gertatu zitzaidan aurreko denboraldi hasieran. Apur bat gogaituta sentitu nintzen. Hainbeste denboran lehiatu barik egon eta gero, neure buruari presioa sartu nion eta orduantxe izan zen gauzak txartoen irten zitzaizkidan momentua. Gerora, apurka erlaxatzen joan naiz, gauzak beste modu batera hartu ditut, eta orduan ibili naiz ondoen. Nire betiko filosofiara bueltatu naiz. Betidanik, gustatzen zaidalako ibili naiz atletismoan. Neure marka hobetu badezaket, aurrera, eta domina bat irabazten badut, zoragarri, baina egiten dudana gozatzea izan da beti inportanteena.

Prest duzu ikasturte honetarako egutegia?

Oraingoz ez. Oraintxe bueltatu naiz oporretatik. Beraz, lehiako errutinan apurka sartzeko dut helburu. Azaroan krosak hasiko dira eta horiek prestatuko ditut. Horik aurrera, ikusiko dugu denboraldia zelan egituratu.

SD Amorebieta denboraldiko lehenengo garaipenaren bila

FUTBOLA Federazio Kopatik kanpora, ligako lehen puntuak eskuratzen ahaleginduko dira CD Ebroren zelaian

J.D. ZORNOTZA

Iaz Lehenengo RFEF Mailatik bigarrenera jaitsi eta gero, SD Amorebietak jokalaria berri askogaz hasi du denboraldia. Entrenatzailea ere berria da, Aitor Zulaika. Beharbada horregaitik, taldea oraindino berde dagoelako, galdu egin ditu orain arte jokaturiko partiduko ofizial biak: ligako estreinakoa Real Unionen aurka eta RFEF Kopako kanporaketa Zamoraren kontra.

Aurkariak ere ez dira edoze-lakoak izan, dena esan behar bada. Federazio Kopako lehe-

nengo kanporaketan aritu diren 32 taldeen artetik indartsuenera iraketa izan da Zamora. Eta Real Unionek, ondo bidean, mailaz igotzeko borrokan behar luke ligan.

IKER REKAGORRI HARROBIKO JOKALARIAK TITULAR JOKATU ZUEN LIGAKO LEHEN JARDUNALDIAN

Gauzak horrela, Amorebieta denboraldiko lehenengo garaipenaren edo gutxienez lehenengo puntuaren bila joango da asteburuan Aragoira. Domeka eguerdian CD Ebro taldearen kontra neurtuko ditu indarrak. Zaragozako taldeak berdindu egin zuen ligako lehenengo jardunaldian.

Etxekoentzat aukerak

Aurtengo taldea osatzeko, Amorebietak harrobira ere jo. Horren adibide da Iker Rekagorri, haur kategoriatik klubeko harrobian ibili den 21 urteko zornotzarra. Lehenengo taldeko fitxa du aurtun. Real Unionen kontra titular irten eta 65 minutuan jokatu zuen. Asier Sanchez izan zen bere tokia. Sanchez ere eskualdekoa da, berriztarra. 22 urte ditu eta Eibar taldeak dator.



SD Amorebietaren hamikakoa Real Unionen kontra. SD AMOREBIETA

Eskualdeko hiru pilotari Olazar txapelketan

PILOTA Koldo Bikandik, Aingeru Bernaolak eta Faben Ituarte Zaldibarko txapelketan parte hartuko dute. Lehenengo jardunaldia irailaren 18an da. Final-laurdenetatik aurrera zuzeneko emankizunak eskainiko dira 'anboto.org' webgunean

Joseba Derteano ZALDIBAR

Olazar Pilota Txapelketaren 37. aldia hastear da. Irailaren 18ko lehenengo jardunalditik aurrera, afizionatu mailako pilotaririk onenetakoek eguenero jokatuko dute Zaldibarko pilotalekuan, 21:00etan hasita.

Urtero legez, txapelketa binaka eta lau eta erdiaren barruan jokatuko da. 16 bikote arituko dira binaka, eta 16 pilotari kaio-laren barruan. Tartean, eskualdeko hiru ordezkarri daude: Aingeru Bernaola mañariarra binakakoan arituko da, eta Koldo Bikandi iurretarrak eta Faben Ituarte atxondarrak lau eta erdikoan parte hartuko dute.

Bikandik datorren eguneko lehenengo jardunaldian jokatuko du. Iker Rekalde dimoztarra izango du aurkari. Ez dago faborito argirik partidu honi begira. Binakakoan, Fernandez-Canseco eta Gutierrez-Garmendia bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Ituarte aurre-



lazko aldiko sari banaketako irudia. OLAZAR

rago hasiko du txapelketa. Ikusi egin beharko da zer sasoi puntutan heltzen den aurten, besteak beste, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa eta Lesakako San Fermin Torneoa irabazi dituen aurrelaria.

Bernaolak Xabier Rekaldegaz —Ikerren anaia nagusia— bikotea osatuta hasiko du txapelketa. Bikotekide beragaz amaituko duen, baina, beste kontu bat da. Izan ere, baliteke Rekaldek profesionaletarako saltoa ematea laster.

Txapelketa irabazteko faboritoen artean Zubizarreta-Apeztegia, Lizeaga-Landa eta Amiano-Elorza nabarmendu daitezke binaka, Rekaldek eta Bernaolak osaturiko bikoteaz gainera. Lau eta erdian faboritoen zerrenda zabala dago, hala nola aurten Zornotzako Master Kaiola txapelketa irabazi duen Arkaitz Murua altzotarragaz, Jon Egurrola galdakoztarragaz eta Igor Nazabal gipuzkoarragaz. Pilori hauek denak gazte-gazteak eta aurten zeresana eman dutenak dira.

Emakumeen lau eta erdiko txapelketa bat ere egongo da, baina abenduan hasiko da, finalerdiekin. Gizonen eta emakumeen final guztiak abenduaren 31n jokatuko dira, tradizioari eutsita.

Zuzeneko emankizunak

Zaldia Pilota Taldeak aurten ere zuzeneko emankizunak eskainiko ditu final-laurdenetatik aurrera. Antolatzaileek egindako saioek kalitatezko errealizazioa dute: hainbat kamera, errepikapenak, datuak, elkarrizketak... Normalean, Koldo Aldalur edo Haritz Gallastegi izaten dira esatariak, eta Enrike Agirrebeitia komentaria. Azaroaren 8rako dute aurreikusita lehenengo partidua. Guztira, zortzi emankizun izango dira. Emankizun horiek www.anboto.org webgunearen bitartez ere jarraitu ahal izango dira eguenero.

Tabirakok bere 56 taldeak aurkeztuko ditu hilaren 19an

SASKIBALOIA Durangoko saskibloi klubak 56 talde ditu eskola kirolekoen eta federatuen artean

J.D. DURANGO

Durangoko saskibaloia klubak maila guztietako taldeak aurkeztuko ditu irailaren 19an, 17:00etan, merkatu plazako aurkezpenean. Aurten 56 talde dituzte eskola mailakoak eta federatuen artean; guztira, 800 bat jokalaria eta entrenatzaile.

Lehenengo Nazional Mailan dabilen emakumeen talde nagusiak etxean hasiko du denboraldia, urriaren 4an, San Ignacio taldearen aurka. Maila berean dabilen gizonen talde nagusiak ere urriaren 4an hasiko du liga, baina kasu honetan etxetik kanpora, Askartza Claretan kantxan.



lazko aurkezpena. TABIRAKO



JOKALDIA

DANI NUÑEZ KICKBOXING ETA BOXEO

Kontaktu kirola terapia moduan

Irailan hasi dugu denboraldi berria, eta aurten ere ez dugu atsedenik izan. Telefonoa egunero eskuan daramat: deiak bata bestearen atzetik, gazteak, gurasoak, nagusiak... denak informazio eske. Aurten ere izen-emate asko izan ditugu, eta argi geratu zait: kontaktu kirolak modan daude eta urte politak datoz aurretik. Baina moda hutsaz harago, badago beste zerbait.

Gero eta gehiagotan ikusten dudana joera bat dago. Gazte asko —eta hain gazte ez direnak— psikologoak edo arloko profesionalek horrela gomendatuta etortzen dira kontaktu kirola probatzera. Terapia bat da sarritan. Konfiantza baxu dutelako, autoestimua falta zaialako edo beste hamaika arazoirengatik hurreratzeko dira.

Eta hor dago sekretua: kontaktu kirola ez da soilik kolpeak eta defentsak. Sendatzeko pauso bat gehiago da askorentzat. Norberari buruz ikasteko tresna da. Talde giroak eta diziplinak lagun berriak ekartzen

"GAZTE ASKO PSIKOLOGOAK HORRELA GOMENDATUTA ETORTZEN DIRA KONTAKTU KIROLA PROBATZERA"

"MUGA BAT GAINDITZEAK DAKARREN AUTOESTIMU DOSIA GAZTEAREN ALAITASUNAK DEFINITZEN DU ONDOEN"

dizkie askori, eta entrenamenduen erritmoak eguneroko arazoak biguntzen laguntzen du. Hori da gorakada honen arrazoietakoa bat. Bai, Kerman Lejarragak edo Ila Topuriak gure kirolei oihartzun handia eman diete, baina gaur egun gure ikasle askok ez dituzte izen horiek buruan guregana datozenean. "Nire buruarekin hobeto sentitu nahi dut", pentsatzen dute.

Kirola, edozein kirol, sana da arlo mentala hobetzeko, baina kontaktu kirolak badu berezitasun bat: egunetik egunerako hobekuntza norbere esfortzuan dago. Muga bat gainditzeak dakarren autoestimua dosia ez dago definitzerik; edo hobeto esanda, gaztearen alaitasunak definitzen du ondoen. Eta zelan azaldu berbeekin bakardadetik lagunak izatera pasatu den gazteari begietan igartzen zaion distira?

Behin baino gehiagotan deitu didate eskerrak emanez. Emozionatu egiten nau. Gure xumetik, lan guztiak merezi duela sentitzen dut.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

IRAILAK 12, BARIKUA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
IRAILAK 13, ZAPATUA
09:00-09:00
Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 14, DOMEKA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 15, ASTELEHENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 16, MARTITZENA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 17, EGUAZTENA
09:00-09:00
Navarro, Artekaldea 6 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
IRAILAK 18, EGUENA
09:00-09:00
Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
📍 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

Telmo (1031. alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.



IURRETA
Irailaren 6an aittitten urtegune izen zan. Zorionak, aittitte!



Elene
17 urte eder, zorionak! Maite zaitugu, **Elene!**



DURANGO
Jon Areitio
Irailaren 14an, 13 urte. Zorionak, txapeldun! Ze handi eta arduratsu bilakatzen zabizen, eta zelako adarjole aldi berean. Txantxetarako beti prest! Jarraitu



IURRETA
Urtzi
Zorijonak, **Urtzi!** Gure etxeko Satan bihotz txikik urtetxo bat bete dau. Mosutxo bana Billabona eta bertako familiaren partez!

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

Iraila

18 OSTEAGUNA **'EUTSI RAMON'**
17:00 Olakueta Plaza

25 OSTEAGUNA **'NUMENAK'**
17:00 Berrizjauregi

27 LARUNBATA **OKANGO AUZOKO JAIAK**



EKINTZAK

IZEN-EMATEA
Irailak 10-19 erroldatuak
Irailak 17-19 ez erroldatuak

2025 - 2026

BIBLIOTEKA

Iurreta
Berrizko Kultur Ekitaldiak







BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUNERA

UDAIKO

ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO
ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
smartbox bat

PUBLIKOAREN SARIA
Garaiko landetxean egonaldi bat

DURANGALDETIK
KANPOKO ARGAZKIRIK
ONENA

EPAIMAIAREN SARIA
Databostek emandako aurikularrak

PUBLIKOAREN SARIA
Euskal Produktuz osatutako otzara



LAU-HORTZA

IRURI ALTZERREKA
MARTINEZ

Etxekotzea

Ez dakit noiz sentitu nuen lehen aldiz etxe propioa izateko beharra, gurasoenetik joatekoa. Seguruenik uste baino goizago. Etxeak babesa ematen du, aterpea, besteen begiradatik at izateko beta. Baina, batez ere, intimitaterako eskubidea. Nerabezaroan hainbestetan ukatu eta oztopatu diguten hori. Intimitatea biluzik ibiltzeko, musika jarri eta abesteko, puzkerrak botatzeko... edo, beste barik, egoteko.

Ingurura begiratzuz gero ez dira asko emantzipatzea lortu duten gazteak. Etxeen esku-raezintasunari eta prezioen gorakadari gure soldaten zenbatekoa gehitu behar zaio. Matematikak egitea baino ez da. Gehiketak eta kenketak. Bada urruneko ahaideren baten pisuan bizitzeko zortea duenik. Bada gurasoekin bizitzea nahiago duenik, aurreztu eta geroago erosi ahal izateko. Kasuistikak kasuistika, nahi duenak aukera izan beharko luke, soldata erdia alokairura bideratu gabe.

Izan ere, gauza jakina da higiezin merkatuak herri-tarron kezka piztu duela azken urteetan, gazteen artean gehienbat. Zein da emantzipatzeko adin egokia? Eta zein gure bizi baldintzek ahalbidetzen digutena? Dударik gabe, diru laguntzetatik harago doazen errotiko neurriak behar ditugu, etxebizitza duinerako sarbidea bermatu nahi bada.

AKUILUA

"Ekuadorren hangoa legez sentitu nintzen"

BELEN URUTXURTU ARGIAÑO (BERRIZ, 1960) ESKULTOREA

'Horno Manabita' eskultura sortu du Ekuadorreko Montubia Kulturaren Museorako. Eskuahaldun elkarteko kideak esan du esperientzia aberasgarria izan dela

E.H./A.B. BERRIZ

Ekuadorko Manabí probintziako San Isidro herrian egon da Belen Urutxurtu udan, enkargu berezi bat betetzeko: montubia Kulturaren Museorako eskultura egin du. Antzinako Manabiko labea irudikatzen duen sei metroko egitura sortu du Gasteizen bizi den berriztarrek.

Zelan heldu zitzaizun eskultura sortzeko aukera?

Juan Ramon Etxebarriaren eskutik heldu zitzaidan proposmena. Manabiko San Isidro herrian abade izan zen bera urte askoan, eta erretiratu zenean amestutako proiektua ipini zuen martxan: montubia kultura zabaldu eta ikertzeko helburuagaz, Raíces y Sueños Fundazioa sortu zuen orain zazpi urte. Apiril inguruan, Gasteizko Ignacio Aldecoa kultur etxean bat egin genuen biok, eta Montubia Kulturaren Museorako eskultura bat sortzea proposatu zidan. Ekainaren 15ean joan nintzen Ekuadorrera, eta ia abuztura arte egon nintzen han.

Zelakoa izan zen prozesua?

Lehenengo eurekin egon nintzen, hango kultura ezagutzeko, zer gura zuten jakiteko. Bada, Manabiko labea Ekuadorko kultur



ondare izendatu behar zutela jakin nuen. Izan ere, 2026an, Manabí Munduko Gastronomia Eskualdea izango da. Bada, hortik hasi nintzen lanean. Manabiko gastronomiaren oinarria izan da betidanik labe hori.

Zelakoak ziren labe horiek?

Hiru zulodun zeramikazko mahai baten azpian egiten zuten sua, eta zulo bakoitzean buztinezko lapiko bat ipintzen zuten, parilla baten gainean. Labe berezi hori dantzan ipini gura izan dut.

Izan ere, asko hunkitu ninduen dantzak montubia kulturaren duen garrantziak. Horregaitik, mahai zuzen bat ipini beharrean, dantzan dagoen mahai bat islatu gura izan dut. Horren inguruan lapikoak eta kea irudikatzen duten hagaxkak ipini ditut. Garai bateko otorduak ekarri gura izan ditut gogora: denak kearen inguruan elkartuta, berbetan. Izan ere, hangoek oso gogoan dute labe edo sukalde haietan sortzen zen kea. Iruditu zitzaidan ke horrek batzen dituela.

Sei metroko egitura sortu duzu. Zelako harrera izan du?

Burdinagaz landu dut mahaia, eta labea hormigoizkoa da. Gai- nean, airean baleude lege, benetako ontziak ipini ditut, kea irudikatzen duten hagaxkez inguratuta. Asko gustatu zaie eta ni ere oso pozik nago emaitzagaz.

Zer iruditu zaizu Ekuador?

Hunkigarria. Paradisu bat da, eta jendea oso abegitsua. Hango lege sentitu nintzen lehenengo egunetik. Maitagarriak dira. Asko harritu nau ez dutela buztina edo zeramika lantzen, bategi ez. Herrialdeak buztinagaz duen lotura historikoa kontuan hartuta, asko harritu nau 80 urtetik gorakoek bakarrik gogoratzen dutela arbasoek buztina lantzen zutela.

Bueltatuko zara?

Ez dut datarik baina joango naiz, seguru!

"MANABIKO LABEA HANGO GASTRONOMIAREN OINARRIA IZAN DA BETIDANIK"



Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:
sukia.com 946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa